

MUNIBE (San Sebastián)
 Sociedad de Ciencias Naturales **ARANZADI**
 Año XXIII. N.º 4. 1971. Páginas 543-548

Erdiaroko Santiyago - bideak Gipuzkoa'n zear

LEKUONA'TAR MANUEL

Urte oetan, gure artean asko aipatu dira «Santiyago-bideak».

Ez dakit, ordea, gauza jakingarri-jakingarririk esan danik, Gipuzkoari dagokion aldetik, gai ontan.

Naparrak sakonago aztertu dute gai au, beren lurrari dagokion neurrian. Ederkitxo aztertu dute —ta apaindu ere bai— Orreaga'tik sartu, eta Iruñea'n ta Garex'en ta Estella'n zear, Logroño-inguruan Nafarroa'tik irteten dan Santiyago bide-troxa. Egoki ere bait zegokion, bide orrek «pelegrin-bide» bezela Nafarroa'n duan garrantzi aundiari.

Bañan, napar-bide ortaz gañera, ba genduan Erdi Aroan Gipuzkoa'n ere beste olako bide bat, Ixtori-zaleak «Kosta-bide» esaten diotena. Ez bait det uste, ordea, urte auetan bide ori bear bezela aztertu danik, nontsutik zijoan jakiteko bederen; egoki izango da, beraz, esan dezagun, bakoitzak berak gai oni buruz dakiguntxo.

Ortara nator lerro-apur oietan.

* * *

Neretzako gure «Kosta-bideak» bi zati zituan: biak pelegrin-Santutegiz markatuak beren joaiera guztian. Pelegrin-Santutegiak: zala Santiyago, zala Santa Marina, zala San Pelaio, zala Madalena, zala **Salbatore**, zala **Sanctispiritus**... guzi oietatik bait dago zerbait gure bide oietan.

Bi zati oietatik, bata Gipuzkoa'ren erdiz-erdi zijoan, Irun'dik asita San Adrian'era. Bestea, itxas-bazterragotik, Ondarrabia'tik asita, Bizkai-mugaraño.

Lenengoa, zaldiz egiten zan, batez ere; bigarrena oñez. Lenengoa, gañez-gain; bigarrena, beeratxuagotik. Lenengoak, ibaiak ibietan barrena igarotzen zituan, goi-antzean; bigarrenak, ibai-zabalak urez-beerean, itxas-urrean, batelez igaro bear izaten zituan. Lenengoari, «Goierri-bide» esango diogu; bigarrenari, «Beterri-bide».

I. GOIERRI - BIDEA

Goierrri-bideak, Irun'en zuan asiera; obeto esan, Behobia'n (**Beko** ibian); eta Gipuzkoa osoa, erdiz-erdi igaro ondoren, Aizkorri-mendin San Adrian'dik jeisten zan Araba'ra.

Behobia'tikan, Bidaso-ibaia zaldiz igaro ondoren, peleginariak Irun'a jotzen zuten («Irun' go Andre Mari»); eta andik Oyartzun'go lurreean Andearriaga'ko Elizatxoan eta Gurutze'n barrena Oyartzun'a eltzen ziran; eta Oyartzun'dik ibaia Aranguren'go inguruan igaro ondoren, Errenteri-erria eskui utzirik, Zamalbide'n barrena (Zamari-bide = «Camino de caballerías»), Astigarraga'ko Bentara iristen ziran; eta andik, Santiyago-mendin zear, Astigarraga'ko Ergobia'ra jetxi (Ergo-ibia = «vado de Ergo»), eta andik Ernani'n barrena, Lasarte'ra; eta andik, Zubietan barrena (Santiyago-Eliza ta zubia), gañez-gain, Andatza-mendin barrena, Zarate'ko Bentan barrena, Andazarrate'n barrena, Iturrioz'ko Bentan barrena (San Juan Ermita famatua), Ernio'ko Zelatun-soroan barrena, Bidaniara jeisten ziran; eta Bidania'tik. Beizama'ko Santa Ageda-Ermitan barrena, gañez-gain berriz ere, Santa Marina ezker utzirik, Muru-mendin barrena, Garin ere bere San Sebastian'ekin ezker utzirik, Mandubia'ko Portura jeisten ziran; eta andik, Kizkitza'ko Andre Mari'ren Ermitan barrena, Ezkiogan barrena (Santa Marina Ermita), Zumarraga'ko Antiguara jeisten ziran eta andik Eizaga'n barrena Aztiria'n barrena (Santa Marina Eliza), Zerain'go mendietan zear San Adrian'go portura igo, andik Araba'ra jeisteko...

* * *

«Goierrri-bide» egoki esan dezaiokegu bide oni. Bein Lasarte igaro ezker, berealaxe aritzen zituan goiak; eta, beti goiai eutsiaz («Eutsigoiar!» esan oi dan bezela) aal zuan laburrenik eta azkarrenik igarotzen zuan Gipuzkoa osoa, mutur batetik bestera, Probintziaren bizkar ezurrari zuzen jarraituaz beti.

Bein Lasarte igaro ezker, gañera, etzuan ibairik ikutzen. Bide dana legorrik-legor egiten zuan.

Bitartean, ori bai, gurutzatzen zituan zenbait «zear-bide», Nafarroa'tikan Bizkai-aldera zihoazenak: Zarate'n Berastegi'tik Orio'ra zijoana; Andazarrate'n (Santa Marina), Amasa'tik Azpeiti'ra zijoana; Bidania'n, Tolosa'tik Azpeiti'rakoa; Mandubia'n Beasain'dik Azpeiti'rakoa; eta Aztiria'n (Santa Marina), Segura'tik Oñati'rakoa.

PELEGRINARI - SANTUTEGIAK

Bide onen apaingarri bezela aipa ditezke zenbait Elizatxo ta Santutegi, peleginari-kutsu dutenak: Irun'en «Irun'go Andre Mariaz» gañera (Santa María del Juncal), Santiagotxo izeneko auzoa, Eliz-ondoan.

Qyartzun'en Salvatore eta **Santicpiritus** ta San Anton eta Madalena ospitalak.

Bañan gai ontan, batez ere oso aipagarri, Astigarraga'ko Santiyago-mendi zan.

Mendi-gañean Eliza zabal askoa; eta batez ere, Aldare Nagusian, Santiago «Matamoros» esan oi zaioneko Erretabloaz gañera, Sagrario antzeko batean, alabastrozko Santiago «Pelegrinaria», ez oso aundia, bañan bai oso interesgarria, gaiaz gañera, artez: erromaniko-egitura bait du aurpegian; eta, dirudianez, Konpostela'ko kutsu ere bai: Santuai bizarra okotzetik mototsetan dario, eta motots bakoitzak bukaera espiral-antzean kiribillatua du, Konpostela'ko «Ate Aundiko» Santuak bezela-bezelaxe...

Beste gauza aipagarria Santiyago-mendi ontan, mendia bera da. Mendi osoa karaitza da, eta karaitzean, nunean-nunean, fosillak ageri dira: **pekten** ta **belemnites** fosillak; **pekten**, Santiyago-ren txirlaren egiturakoak; eta, **belemnites**, Santiyago'ren bordon-makil-puskaren egiturakoak. Fosil oiek bezelakoxeak arkitzen bait dira Rioja'ko Klabijo-mendian ere, ots, Santiyago «Matamoros» agertu zalako mendi sonatuan. Erriak uste duanez, gañera, fosil oiek Santiyago'ren oin-arrastoak dira. Santuak zebillen lekuetan uzten zituan oñatz arri-biurtuak, alegia.

Astigarraga'n, gaurko Elizako Santu Patroia Ama Birjiña dan arren, erriko jaiak Santiyago-egunean egiten dira.

Bide berean, Zubieta'n ere Eliza Santiyago'rena da; Bañan Lasarte'n, Eliza San Pedro'rena izan arren ba zan kalean «Santiyagoren» izeneko etxe bat, eta Santiyago-bigaramonean (Santa Ana) teatro-jai berezi bat egin oi zan an, orain urte gutxi; teatro-jai bat, Erdi Aroko kutsu aundia zeriona (lapur baten-edo auzi-fartsa, Juez ta Fiskal ta Abogado ta guzi, eta lapurra —lastozko domingillo— su eman-da erretzea aizkenik, biziro parragarri) nunbait, antziña-antziña, peleginarien entretenigarri Santiyago-jaietan egin oi zan jaia...

Bañan Gipuzkoa'ren beste muturrean zan, batez ere, bide onen punturik ezagunena ta otsaundikoena. Ezagunena, ez emen-oietan bakarrik, baita Frantzia'n ta Alemania'n ere: San Adrian, San Adrian'go koba-zuloa. Alemania'ko zenbait liburutan gure kobaren estanpa ikusgarri bat arkitzen bait da; eta berdin, baita, Frantzia'ko peleginarien Kantutegietan ere San Adrian aipatzen da zenbait koplatan (1).

Ortaz gañera ba du San Adrian'ek Kondairan gogoangarri geiago ere: koba-zulo ontan zear zenbait Errege aundi igaro izana, alegia; aien artean, Karlos, Kastilla'ko I, ta Alemania'ko V, gipuzkoarren adiskide aundi zalakoa, eta, ain xuxen San Adrian'go koban igarotzean, beste iñun ez-ta, an goia joko ez bazuan, burua mukurtu bear izan omen-zuana... Andikan zear igaro bait zan, irueun urte leenago, baita, Gipuzkoa'ko armarrarian ageri dan Alfontso VIII ere, Kastilla'tik gure auzo Lapurdi'ra etorri zanean, bere emazte Alienor'en dotearen jabe egitera; ez bait zitekean igaro, gaur bezela, Etxegarate'ko Portuan barrena— nafar-lurraldean, alegia— Nafarroa'ko Errege Santxo «Sendorekin» etsaitua zegonez...

Ortaz gañera, San Adrian —edo **Santatri**, artzai-jendeak esaten dioten bezela— antziña-antziñako Ermitaño Santu baten itzalez «santutua» dago; eta kobak bere barruan Ermita txiki bat dauka, bere Andre Mari gotiko apain bitxi ta guzi...

Kobatikan beeratxuago, zabalune batean, an zeukaten, XVI gizaldi arte, Bayona'ko ospitalario **Santispiritutarrak** beren Ospitala peleginarien serbitzurako, gero Gipuzkoa'k berak bere arduruan euki zuana; orain Kapillatxo bat besterik ez bait da. Ospitalario berak ba zuten baita Segurako Elizan Kapilla eder bat, Santiyago «Matamoros'en» Aldare ikusgarri batekin.

GURUTZEKAKOAK

Ezker-eskubi, Goierri-bidea gurutzatzen zuten bideak aipatu ditugu: Nafarroa'tik Bizkai-aldera zijoazenak, alegia: Berastegui-Orio; Amasa-Azpeiti; Tolosa-Azpeiti; Beasain-Azpeiti; Segura-Oñati...

Oiek ere, pelegiñari-bide ziran; Nafarroa'tikan, Bizkai-aldera, Sartaldera, egiten bait da Galezia'ko Santiyago. Orregatik Nafarroa'tik Bizkai-aldera joan bearra zeukaten, alde aietatik zetozenak: zala Gipuzkoa'n zear, zala Araba'n zear (Pamplona-Gazteiz-Miranda), zala Burgos'en zear (Panplona-Estella-Logroño-Burgos): beti ere Sartaldera.

Trabeskako bide oietan garrantzi aundisnetakoa Gipuzkoa'n Seguran zearrekoa zan. Nafarroa'tikan zetorren: bi pusketan: zala Larraun'en zear, zala Ataun'en zear, biok Idiazabal'en Gurutzeta'n alkartu, eta Segura'n barrena, naiz Oñati'ra artzeko, naiz San Adrian'a.

(1) Begira nola aipatzen duan San Adrian, Frantzia'ko peleginarien Kantategi batek. «Mais nous fûmes bien etomnés quand nos fûmes a Saint Marie... Irun'go Andre María itz oietan aipatu ondoren onela jarraitzen du:

«Nous avons chaminé longtemps
dans les montagnes de Biscaye,
cheminants toujours rudement
par le pays en droite voie.
jusq'au mont SAINT ANDRIEN».

Eta onela jarraitzen du:

«Nous fûmes grandement joyeux
entre Peuple et Victorie...»

Ederkitxo esaten bait du, Irun'dikan San Adrian'erañoko bidearen luzea (**logtemps**) eta latza (**rude**), bañan baita bidearen zuzena ere (**droite**), naiz-ta, askok orduan oi zuten bezela, gure Gipuzkoari Bizcaia deitu.

Larraun'goak, Lekunberritik, Atallo'n zear, Azkarate'n zear, Bedaio, Amezketa ta Larraitzen barrena, Zaldibia'n zear (Zaldi-ibi), Lazkau'n zear, Olaberria'n zear, Idiazabal'a jotzen zuan; eta Idiazabal'en, Ataun'dik zetorrenarekin alkaturik, Segura'ra jo; andik, esan degun bezela naiz Aztiria'n Goierri-bidea gurutzaturik, Udana'ko portuan barrena Oñati'ra jaisteko; naiz, Segura'tik Zerain'en zear San Adrian'a igotzeko, eta andikan Goierri-bidearekin batean Araba'ra jetxi...

I I . B E T E R R I - B I D E A

Goierri-bidea azkarra zan bezela, Beterri-bidea bide patxarakoa zan. Patxarakoa, astirokoa.

Oñezko bidea zan; zaldiz ezin egin zitekeana; ibai zabalak igaro bear bait zituan.

Oñezkoak, Goierri-bidetik ere joan zitezkean; bañan oñezkoen bide jatorra, Beterrikoa zala esango genduke.

Batel-bidea zan nunean-nunean. Ibai zabalak, batelean igarotzen zituzten, bide ortan zebiltzanak.

Lenengo batel-troxoa, Endaya'tik Ondarribia'rakoa zan. Bigarrena, Pasaya'n Lezo'tik Errera'koa; irugarrena Donostia'n Urumea'koa; laugarrena, Donostia'n bertan Ibaeta'koa; boskarrena, Orio'koa; seigarrena, Zarauz'koa; zazpigarrena, Zumaya'koa; zortzigarrena, Deba-Astigarribia'koa. Zortzi-batel-aldi. Troxurik luzeenak, Ondarribia'koa, ta Pasaya'koa, ta Orio'koa, ta Zarauz'koa, eta aizkenik Deba-Astigarribia'koa...

Endaya-Ondarribi-troxua batelez egin ondoren, lenengo oñezko troxua, Ondarribia'tikan Lezo'ra bitartekoa zan: Jaizkibel-mendi-barrenean. An dago, Marina-barruan, Madalena-auzoa: eta bidean, ez uruti, Santiagotxo deritzan Ermitatxo.

Lezo'n, batela artzeko kaia, Gurutze Santuaren Elizaren babesean zeukaten peleginariak. Elizaren eta ango Gaxotegiaren baztarrean. Pasaya'ko batel-troxua egiteko batelariak, emakumeak bide-ziran: «Bateleras de Pasajes» ziralakoai izena eman zieten batelariak, alegia. Troxu luzetxo gertatzen zan, Lezo'tik Errera'raño; pasadizu onengatik bait deritza itxas-troxu au, gaur oraindik deritzan bezela: «Pasaya».

Urrengo oñezko troxua, Errera'tik Donostia'rakoa zan: Mirakruz'en barrena —andikan iru Gurutze Santu ikusten, alegia: Lezo, Mota eta Ayete—. Donostia'n Urumea ibaia, gaur arrizko zubian igarotzen degu; orain eun urte arte, zurezko zubian igarotzen zuten gure bir-aitonak: leenago, berriz, zubirik ez, eta batelean igaro bear. Donostia'n, peleginarien itzalgarri, an zeuden Urumea-baztarrean Santa Katalina Eliza, dirudianez Tenplarioena, eta aren inguruan baita San Anton'en Gaxotegia ere. Eta andik ez uruti baita San Martin'ena ere.

Urrengo oñezko troxua, Aldapeta'n gora zan; eta Ayete'n beera Zapatari'ra jeisten zan. Urrengo batel-troxua, Ibaeta'n, orain lur legor, bañan oraindik berriro arte ixtinga ezagutu degun zati naiko zabala.

Ibaeta'tik Orio'raño, oñezko troxua, Arratzain en eta Mendizorrotz'en erditik zan. Bide beretik joatekoa bait da, orain egin-asmo dan auto-pista aundia.

Orio-gañean, zabal-une batean, San Martin'en Basa-Eliza bikaña arkituko zuten peleginariak beren bearkizunetarako. Eta andikan, goitik beera Orio'ko kalera jetxiko ziran, berriz ere, orain zubia dan lekuan batela artzeko.

Batel-troxu au bi eratara egingo zuten: batzuek Santiago-errekara joko zuten, bide luxe-luxea, bere Santiago Elizatxoarekin, andikan, naiz Aya'ra, naiz Zarautz'a jotzeko; eta besteak eskuitara artuko zuten, San Paulo'ren Ermitatxo-oñean dagon kaiera, andikan, bide laxterrez, «Orio'ko aldapan gora» Zarautz'a sartzeko.

Zarautz'en batel-troxua San Pelayo'n asten zuten, Eliza-inguruko Santa Marina'raño. Orain ez bezela, orduan dan ori ura bait zan.

Elizatik Getari'raño berriz ere oñezko troxua, Zarautz-gañeko Santa Barbara-Elizatxoan barrena.


Getaria'n, erria, bere San Salvador-Elizarekin eta San Anton-mendiarekin eskui utzirik, peleginariak beren bideari jarraituaz, Azkizu'ko San Martin'a iritxiko ziran, andikan Zumaya'ko Santiago-Elizatzora (gaur Zuloaga'ren Museora) jeisteko.

An, berriz ere, batel troxu bat Elizaren oñeraño.

Eta orain berriz ere oñez, txango luze xamarra: Arritokieta'ko Elizatzxoan barrena, Eloorriaga Elixatzxoan barrena, gañez-gain, Salbatore basa-elizaren oñean barrena, Itziar'ko Andre Mari apañaren Eliza bikañeraño.

Andikan aurrera —Deba'rik oraindik etzanean— gañez-gain, batzuek Ermitia'ko koba-zuloan barrena Sasiola'ko Gaxotegira joko bait zuten, andik Astigarribia'ra igarotzeko; besteak, Irarrazabal'go kaiera jetxiko ziran, an azkeneko batel-troxua Astigarribia'raño egiteko.

Astigarribia'n, Beterri-bideak eta itxas-inguruak utzita, mendi-aldera artzen zuten, Arnomendi'n zear, Arnobate'ko Bentan zear, Arrate'ko Andra Mari'ren Eliza ederrean zear, Azitain'go Elizara ta zubira jeisteko; eta andik - Eibar eskuitara utzirik - San Salvador Ermitan zear, Santiago



Gipuzkoa'ko bi bideak: Goierri-bidea eta beterri-bidea.

Ermitan zear, Elgeta'ko goietara igotzeko; andik aurrera Azentzio Ermitan barrena, Udala-mendi'n San Balerio'ren koba-ermitaren oñetik, Aramayo'ko lurretara igarotzeko; eta azkenik, andik, berriz ere, Araba'ko zabaldietara jeisteko, naiz Legutiano'n zear, naiz Gatzaga'ko Portuan barrena...

Guzti-ori, ordea, Arrate'ko Andra Mari'ren oñetan, berriz ere, Bizkai-alderako peleginari-bide on bat utzi ondoren, Urko-mendi'ren babesean...

BIDE APAIÑA

Ezin ukatu, Beterrri-bide ori, bide polita zanik. Polita eta apaña, Santutegiz nun-nai apaindua. Ikusi degu.

Ondarribia'n Madalena ta Santiyagotxo.

Lezo'n Gurutze Santu —ain zuzen, detalle berezi-berezi bat duana: Kristo Gurutziltzatuaren Irudi zaarra, «afeitatu» izatea; Eibar'ko Azitain'en ere detalle ber-bera bait du ango Elizako Gurutze Santu zaarrak: «afeitatu» izatea, bizarrrik gabea.

Donostia'n Santa Katalina ta San Anton ta San Martin; Ayete'n Gurutze Santu; Ibaetan Aingeru Guardako.

Orio'n San Martin eta Santiyago.

Zarautz'en San Pelayo ta Santa Marina.

Getaria'n San Salvador ta San Anton; Azkizu'n San Martin ta Madalena.

Zumaya'n Santiyago ta Arritokietako Andre Mari.

Itziar'ko lurrean, Elorriaga'ko Ermita, bere Andra Mari gotikoarekin; eta Urtiaga'ko Salbatore basa-ermitatxoa; eta, batez ere Itziarko Andre Mari erromanikoa bere Eliza zabal bikañean.

Astigarribia'n Eliza zaar bisigotikoa, zaldi-perra-egiturako leioduna.

Eibar'en, Andra Mari Arrate'koa, eta Azitain'go Gurutze Santu, ta Santiyago ta Madalena ta San Anton, eta San Salvador'en Ermitatxoa.

Bergara-Elgeta'n Santiyago'ren Elizatxoa eta Azentzio-Ermita entzute aundikoa.

Azkenik Mondragoe'ko lurrean Udalatx'ean San Balerio'ren koba-ermita...

LEKUONA'tar MANUEL